

Zozketaren oinarriak sare sozialetan

“La vida es bella”-ko hiru pack

Bertan zozketa egiteko oinarriak zehaztuko dira.

Parte hartzeko baldintzak:

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak sartuko dira zozketan:

- La Fundación-en kontua jarraitzea Instagramen edo Facebooken:
www.facebook.com/LaFundacionSanPrudencio
www.instagram.com/lafundacionsanprudencio
- Ihesaldi horretaz gozatzea gustatuko litzaizukeen pertsona hori (@erabiltzailea) aipatzea, sare sozialean zozketari buruz argitaratzen det publikazioan.
- Irabazleek Araban bizi edo lan egin beharko dute.

Zozketaren prozedura

- Zozketa App Sorteos aplikazioaren bidez egingo da: **<https://app-sorteos.com/es>**
- Aplikazio honetan, zozketan parte hartzeko data isten denean, publikazioaren URL-a sartzen da, zozketa egiteko baldintzen iragazkiak aplikatuz, eta irabazleak plataforman agertuko dira sistema aleatorio baten bitartez.
- Zozketan parte hartzeko, argitalpen bat sortuko da eta ikusgai jarriko da stories-en, plataformen, edo iragarkien bidez.
- Pertsona bakoitzeko komentario bat bakarrik erabiliko da zozketarako. Hau da, pertsona batek behin baino gehiagotan komentatzen badu ere, bakarrik komentario batek balioko du. Hau, App Sorteos aplikazioaren bidez duplikatuak ezabatzeko filtro baten bidez egingo da, zozketan parte hartzeko.
- Instagram sare sozialean bi irabazle, eta Facebook-en bat egongo dira.

- Zozketa amaitu ondoren, irabazleak beste argitalpen baten bidez iragarriko dira, eta bertan adieraziko da zozketan parte hartzeko aukera amaitu dela. Lehenik, irabazleekin harremanetan jarriko gara (mezu pribatu baten bidez, eta argitalpenean bertan aipatuta). Gurekin harremanetan jartzea lortzen ez badugu, ezin badu opariaz gozatu, edo hau jaso, berriro ere sistema berdina erabiliko da beste irabazle bat izendatzeko, eta horrela hurrenez hurren.
- Irabazleetako batek saria baztertzen badu, aplikazio bera erabiliko da berriro, eta horrela hurrenez hurren, hiru irabazleak esleitu arte.
- Oinarri horiek La Fundación-eko webgunean kontsultatu ahal izango dira. www.lafundacion.com
- Iraupena: zozketa irailaren 9an egingo da (eguerdiko 12:00etan), eta irailaren 20an amaituko da (eguerdiko 12:00etan). Irabazleak irailaren 21an iragarriko dira (eguerdiko 12:00tan).

Saria baliatzeko baldintzak

- Zozketaren irabazleei mezu pribatu baten bidez jakinaraziko zaie emaitza, eta irabazleen argitalpenean aipamena egingo zaie. Hiru egunez harremanetan jartzeko ahalegina egingo da, eta epe horretan erantzuten ez badu, laugarren egunean, aplikazio berdina erabiliko da beste irabazle bat ateratzeko.
- Irabazleek Araban bizi edo lan egin beharko dute, eta La Fundación-eko bulegoetatik pasa (Dato Kalea 43), kontratu bat sinatuz sariaren onarpena idatziki uzteko. Sinadura horrekin, bere datuak eta irudia web-orrian, zare sozialetan edo beste bitarteko batzuetan erabiltzeko baimena emango du, saria onartu eta eman ondoren (izena, abizenak, empresa).
- La Fundación-eko langileek ezin izango dute zozketan parte hartu.
- Petsona berak ezingo du irabazi Facebook-en eta Instagram-en (bi sare sozialetan). Hortaz, pertsona bakoitzak pack bakarra irabazteko aukera du. Horretarako, Facebook-eko irabazlea Instagram-eko pertsona berarekin bat ez etortzea aztertuko da. Behin saria emanda, La Fundación-ek ez du bere gain hartuko galeren, erabilera txarren, edo saria hartzeagatik gerta daitekeen beste edozein

inguruabarren erantzunkizuna, edo, baita, pack-aren data erabili aurretik amaitzen bada.

- Zozketaren edozein oinarri ez betetzeak saria galtzea ekarriko du. Beraz, irabazlea iragarri aurretik, garrantzitsua da kontua jarraitzen duela aztertzea, eta beste pertsona bat aipatu duela begiratzea.